

# AIARALDEA *hemen*



LEIRE ORUETA GOMEZ:  
**“Filmaren gidoian agertzen dena errealitatera eramatean datza gure lana”** 10-11 or.

GEHIGARRI BEREZIA:  
**Zer egin, indarkeria matxistaren lekuko, eragile edo eraso jasan duena bazara?**



**“Oraindik ere harritzen naiz Laudiotik idatzitako obra txiki hau izaten ari den ibilbidearekin”**

AIARALDEA 4  
**Bizilagunak** ekimena egingo dute kulturarteko harremanak ehuntzeko  
Zurrumurru arrazisten aurkako taldeek hainbat ekintza antolatu dituzte

URDUÑA 5  
**Jai-alai frontoia atondu** zuten herritarrek urriko auzolanean  
Frontoiko barandak eta hormak margotu dituzte Auzolan taldeko kideek

HEZKUNTZA 8  
**Irlandan egon dira Amaurre** ikastetxeko hainbat gazte  
Hizkuntza gutxituen gaia landu dute Erasmus+ programaren bidez

KULTURA 14-15  
**Kevin Iglesias** zinemagileak hiru lan aurkeztu zituen Sitgesen  
“Hiru film labur izan ditugu eta hirurek ondo funtzionatu dute publikoaren artean”

KIROLA 19-20  
**Gorobel ibilaldiaren 35. edizioak** ehunka mendizale bildu ditu  
Aiaraldea Komunikabideak argazki erreportajea osatu du ibilaldiko irudiekin



**Kalitatezko enpresa-opariak diseinatu eta ekoizten ditugu**



**Graf!k**

Telleria 2, LAUDIO  
94 672 65 43  
grafik.eus



# erreportajea



## Bazen behin Laudio distopiko batean...

Txani Rodriguezi eman diote Eusko Jaurlaritzako Euskadi Saria *Los últimos románticos* eleberriagaitik. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Zerk inspiratzen du Euskadi Literatura Sari bat? Txani Rodriguez idazleak *Los últimos románticos* eleberri saridunaren protagonista bilakatu ditu Laudio eta Aiaraldeko tokiak, bai eta gizartea ere.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Txani Rodriguez idazle laudioarrak Euskadi Literatura Saria irabazi du. Gaztelerazko eleberrien kategorian izan da garaile, *Los últimos románticos* liburuarekin.

Bakardadearengailantzen du eleberriak. Irune protagonistak paper fabrika bateko langatzka batean murgilduko gaitu, komunitatearen zentzua eta klase kontzientzia zeharo galdu diren garai batean. Etorkizun distopiko bezain hurbila marrazten du Txaniren obrak.

Eleberriaren orrietan galdu den orok, argi eta garbi

aurkituko zituen Laudioko tokien erreferentziak: kaleak, tabernak, hilerria, trena... Izan ere, narrazioak Laudio distopiko bat aurkezten digu, dekadentea, non saltoki gehienak itxita dauden, eukaliptoen monolaborantza nagusi den, eta aisialdia abandonatutako kanpoaldeko pabiloi industrialetan garatzen den.

Ez da Aiaraldeak Txaniren eleberrietan isla duen lehenengo aldia. Urte luzeko berebraliterarioanetengabeak dira eskualdeari egindako erreferentziak eta keinuak. *Agosto-n*, esaterako, Okondo da narrazioaren agertokietako bat.

Gu Txani Rodriguezekin geratu gara *Los últimos románticos* eleberriaren eta Laudio errearen artean paseatzeko.

### Trenbide pareko paseoa

"Laudio da, baina ez da Laudio, -azaldu digu Txanik-hala ere, eskualdeko jendea oso identifikatua sentituko da bertan deskribatzen diren lekuekin". Gardeko industriagunea eta Zubiko Kurajo lotzen dituen paseora ekarri gaitu Txanik aurrena.

Ibai ertzaren eta altzifre ilara batez ezkutatutako trenbidearen artean ahokatutako pasabide estu eta

### Komunitatearen zentzua eta klase kontzientzia zeharo galdu diren garai batean oinarritzen da eleberria

luzea da. Txanik toki honen deskribapen zehatza eskaintzen du eleberrian, eta Jiro Taniguchi ilustratzailearen bineta batekin alderatzen du. "Leku nahiko itsusia da, batzuetan ederra dirudiena", dio Txanik.

Paseoko jarlekuetako batean hartzen du atsedean Irunek *Los últimos románticos*-en lehenengo kapituluaren, lantegitik herrirako bidean. Bertan eseri gara gu ere hurrengo geltokia zein izango den erabakitzeko.

### Paper fabrika

Eleberrian bezala, errekan gora egin eta industriagunera iritsi gara. Bertan dago Irunereren



## erreportajea

lantokia: komuneko papera eta ahozapiak ekoizten dituen paper fabrika. Lantegiak Artziniegako Lucart enpresan du oinarria. "Nire bikotekideak bertan egin zuen lan, eta eleberriko lantegiak hor du oinarria. Nik irudikatu dudan eraikina, ordea, Tubacexeko sarrera da, Artziniegakoa baino hobeto ezagutzen dudalako", azaldu digu Txanik.

Eleberrian paper fabrikako langile gutxi batzuk greba abiatzen dute, eta lan gatazkaren hainbat pasadizo Tubacexeko lantegiko sarrerak inspiratutako espazio batean gertatzen dira.

Txanik 2019an idatzi zuen eleberria, ezer gutxi imajinatu zezakeen orduan Tubacexeko greba mugagabeaz, eta are gutxiago honek nola edo ahala *Los últimos románticos*-en oihartzuna izango zuenik. "Eleberrian lantzen ditudan gai askok nolabaiteko zentralitatea hartu dute gaur egun. Izan Tubacexeko grebak, eukaliptoen landaketa masiboak edota pandemiak pertsona nagusiengan eragindako

bakardade sentsazioa. Zentzu horretan zenbait pasartek premonitorioak dirudite, baina funtsean gure gizartearen isla baino ez dira."

#### Industria birmoldaketa

Tubacexeko greba mugagabearekin paralelismoa ezustean gertatu bada ere, eleberrian badira esplizituki eta berariaz aipatutako beste lan gatazka batzuk; industria birmoldaketari lotuak hain zuzenera. "Aceros-ekolangatzka aipatu egiten dut eleberrian, eta fabrika ere agertu egiten da. Fikziozko audio horretan, ordea, industria birmoldaketaren ondorioak askoz bortitzagoak dira", aipatu du egileak

#### Pantailara salto

Industriagunetik Batzalarrin kalera bueltatu gara, bertan ere gertatzen baitira liburuko zenbait pasarte. Bidean *Los últimos románticos*-en zinema egokitzapenaz hitz egiteko tartea hartu dugu.

*La trinchera infinita* filmeko ekoizleak izango ditu atzetik *Los últimos románticos*-ek.

Zuzendari lanetan, ordea, David Perez Sañudo arituko da. Perez Sañudok *Ane* filma zuzendu zuen, bere *opera prima*. Gaur gaurkoz gidoia osatzen ari dira, eta horren arduradun nagusia Marina Parés da. Parés-ek Goya saria irabazi zuen iaz.

Datorren urtean hasiko dira filmatzen, eta dena ondo bidean 2023an estreinatuko dute. Txanik ilusio handiz hartu du proiektua: "Pozgarria da zure obrak hainbesteko interesa sortzen duela ikusteak. Talentu handiko jendez osatutako lantaldea ari da sortzen. Hainbat bilera egin ditugu proiektuaz hitz egiteko, eta oraindik ere harritzen naiz nik Laudiotik idatzitako obra txiki hau izaten ari den ibilbidearekin. Oso atsegina da jakitea zure lana erakargarria dela beste pertsona batzuentzako."

#### Auto-sozio-biografia

Laudio literarioan zehar egindako ibilbidea amaituta, Batzalarrin kalean agurtu dugu Txani. Alde egin aurretik bere eleberrietako erreferentzien inguruko azken hausnarketak

elkarbanatu ditugu. "Inguruko lekuen erreferentzia geografikoak ez ezik, bertako testurak eta gizartearen funtzionamendua eleberrietan islatzea dut gustuko". Annie Ernaux idazle frantziarraren auto-sozio-biografia kontzeptua gogoko duela dio Txanik: "Nik ez dut biografia bat inoiz idatzi, nire bizitza ez da hain zirrargarria. Baina, soziologikoki, gizarte bezala, asko dugu kontatzeko. Horrela, nire bizitzan zein beste pertsonen bizitzanoinarritutako pasarteak ekartzen ditut liburuetara."

Etorkizunari ere keinutxiki bat egingio "Nire hurrengoliburuan esplizituki aipatu nahi dut Audio, herriaren izena idatzi, eta bertako pasarte errealak kontatu". Oraindik ez du forma zehatzik etorkizuneko proiektu horrek, joango da mamitzen Txaniren paper artean, baina, etorkizuna egon badago.

Bien bitartean, datorren azaroaren 18an jasoko du ofizialki Euskadi Literatura Saria idazle audioarrak. Etorriko dira aurrerantzean aitorten berriak ere.




Txani Rodríguez-en narrazioak Audioko eta Aiaraldeko toki ezagun asko ditu agertoki. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)


## ELEBERRIAK

Lau eleberririk argitaratu ditu Txani Rodríguez-ek bere ibilbide literarioan


### Lo que será de nosotros (2012)



### Agosto (2013)



### Si quieres, puedes quedarte aquí (2016)



### Los últimos románticos (2020)





# herriz herri

Aiaraldea

## Mahaia eta otordua elkarbanatuko dute Aiaraldeko bizilagunek igandean



Amurrioko Juan de Urrutia plazatik abiatu zuten asteleheneko mobilizazioa. Aiaraldea.eus

Azaroaren 14an *Bizilagunak* egitasmoaren edizio berri bat antolatuko du CEAREk. Zurrumurru arrazistak isilarazteko helburuarekin, mahai baten inguruan bilduko dituzte hainbat jatorri desberdineko familiak.

Testua  
**Almar Gutierrez Bidarte**

Pandemiaren etenaldiaren ostean, bueltanda CEAREuskadik antolatutako *Bizilagunak* ekimena. Datorren azaroaren 14an, igandea, hainbat jatorri kulturaletako familiek mahaia eta otordua elkarbanatuko dituzte "zurrumurru arrazistak eta xenofoboak isilarazteko eta kulturarteko bizikidetzak sustatzeko" helburuarekin.

"Gero eta jende anitz gehiago ezagutu, gero eta gaitasun gehiago ditugu estereotipo eta aurreritirik gabe erlazionatzeko", adierazi dute antolatzaileek. Hori da, hain zuzen ere, *Bizilagunak* egitasmoaren oinarritzeko printzipioa. Horretarako, familiak bazkaria elkarbanatzera animatu nahi dituzte, "familia bera, elkar maite duten edozein pertsona talde bezala ulertuta".

### Sukaldetik plazara

Etxe eta txokoetan elkartzeaz gain, herriko plazak ere hartuko dituzte aurten kulturartekotasunari atea zabaltzeko asmoarekin. Laudion eta Amurrion, esaterako, ekitaldi irekiak antolatuko dituzte Zurrumurruren Aurkako Taldeek Herriko plazan eta Juan de Urrutia plazan, hurrenez hurren.

Musikak girotuta, salda eta bestelako jakiak elkarbanatuko dituzte Laudion 12:00etatik aurrera. Horma-irudi dinamiko bat egingo dute, norberak arrazakeriaren aurkako mezuak idatz ditzan. Kirikiño atsedan taldeak haurrentzako jolasak prestatuko ditu eta, hitzorduari amaiera emateko, dantza emanaldi bat eskainiko dute. Antolatzaileek jakinarazi dute eguraldi txarra eginez gero Aldai plazara mugituko dituztela jarduerak.

Amurrion ere plazan elkarbanatuko dituzte kultura

desberdinen jakiak. Antolatzaileek hainbat familietako 90 lagun inguru elkartzea aurreikusten dute. "Buffet libre a egingo dugu plazako karpan bilduko ditugun jaki eta plater guztiekin", azaldu dute Amurrioko ekitaldiko antolatzaileek. Haurrek Felix Pikatza arotzaren 'Kalaka' egurrezko jolasekin dibertitzeko aukera izango dute. Eguna borobiltzeko, Ilargiak musika taldeak erritmoa jarriko dio arratsaldeari.

"Testuinguru honetan, 'Bizilagunak' bezalako ekimenek berebiziko garrantzia dute, kulturantzatasun espazioak sustatzeko zein herritar bezala diskriminazioaren aurka doan bizikidetzak interkultural baten alde egiteko", azaldu dute CEAREko kideek. Egitasmoan parte hartzeko eta etxeko atea ireki zezaten, 688 800 337 telefonoan eman dezake izena.



**MERTXE AZKARRAGA**

AMURRIOKO ZURRUMURRUEN  
AURKAKO TALDEA

***Bizilagunak: Orain bai,  
eta beti!***



*Bizilagunak: gure ondoan bizi direnak. Axola du gure ondoan bizi denak? Bai, noski! Gure etxe ondoko atean jo beharko dugu uneren batean bizilagunari laguntza eskatzera. Igogailuan batera igoko gara, eta eguraldiaren gaia hizpide hartu. Atariko postontzietan elkarren alboan egongo gara ea banketxearena ez den gutun bat heldu zaigun begiratzen. Balkoian jartzeko landare baten aldaxka emango diot eta emango dit. Gure umeak eta bizilagunarenak korrika abiatuko dira eskaileretan behera, eskolara. Parkean une beretsuetan egongo gara eguzki epela dagoenean...*

*Eta axola du gure bizilagunak nongoan diren? Bai noski! Bere janariaren usainak nire jakinmina piztuko du eta errezetak eskatuko dizkiot, nik nire bizkotxo egin berria pasatzen diodan unean. Gu HMren modaz denok antzera jantzita ibiltzen garen bitartean, bere arroparen koloreaz mirestuta nago! Eskatu diet haien hizkuntzan erabiltzen diren hitz errazak guri irakasteko, haiek gurekin komunikatzeko izugarriko ahalegina egiten ari direla konturatu naiz eta. Zelan ez du izango, bada, garrantzia gure ondoan bizi denak, bere bitartez nire esperientzia-kutxa betetzen baldin badao!*

*Baina, batzuetan, batzuek nahita eta gutako gehienok ezjakintasunez, ez dugu modua topatzen bizilagunarengana hurbiltzeko. Hitz erdia baino gehiago gurutzatuko genuke, baina ez gara ausartzen. Lagunduko genieke, baina erreparoa ematen digu. Horretarako sortu zuen CEARE-ek Bizilagunak ekimena: elkarren alboan bizi garenok, baina elkartzeko bidea topatu ezinda gaudenok gune bat izateko. Urte batzuetan zehar, herri askotan, bertoko familiek gure ingurura bizitzera etorri den beste familia edo pertsona hartu izan ditugu gure etxetan ekimena gauzatzen den egunean: mahai baten bueltan, bi kultura diferente elkartu, eta jaki desberdinak dastatzen ditugun bitartean, bizitzari beste ikuspuntu batetik begiratzen saiatu, etxeko atea zabalduta. Aurten, aldiz, Amurrioko "Zurrumurruren aurkako taldeak", CEAREkin batera, gure hori kalera aterako dugu, eta azaroaren 14an, plazan elkartuko gara bazkaltzera euskal herritarrak, marokotarrak, italiarrak, Siriakoak, argelitarak, sahararrak, kolombiarak, kataluniarrak, Mexikoko lagunak... Bakoitzak bere janaria eramango du, eta elkarren ondoan, inork inor epaitu gabe, denok gure barrua aberastuko dugu, bizilagunak edonongoak izanda ere, beti garrantzitsuak direlako.*



## Aiara

## Izoriako gaztak 4 domina jaso ditu '2021/22 World Cheese' munduko txapelketan

4.000 gazta baino gehiago lehiatu dira sariketan. **Izoriako Gazta**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Izoriako gaztak lau domina jaso ditu munduko gazta txapelketan. Zehazki, World Cheese Awards International Cheese Festival lehiaketan saritu dute Aiarako produktua.

Izoriakogaztandegikokideek sare sozialen bidez eman dute sariaren berri, eta aipatu dutenez, bost kontinentetako 4.000 gazta baino gehiago lehiatu dira sariketan. Hori dela eta, oso pozik azaldu dira tokiko ekoizleak.

### Lau domina etxera

Hainbat kategoriatan hartu du parte Izoriako ekoizpenak. Idiazabalen atalean, brontzezko domina eskuratu dute, eta zilarrezkoa, aldiz, jatorrizko izendapenaren edozein gazta onduren kategorian. Horrez gain, astero 2 tona baino gutxiago ekoizten dituztenen modalitateetan ere jaso dituzte aitortzak. Hain zuzen, bi izan dira ezaugarri horietan gailendutako jakiak: gazta erdionduaren kategorian lehen postualortu dute (urrezko domina), eta gazta onduarenean bigarrena (zilarrezko domina).

## Euskarazko errotuluak jartzea diruz lagunduko du Aiarako Udalak

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Aiarako establezimenduen errotulazioetan euskararen presentzia handitzeko diru-laguntzak emango ditu Udalak. Ostalari eta merkataria interesdunek azaroaren 29ra arte izango dute eskaera aurkezteko epea, udaletxean bertan. Interneten bete eta deskargatu daiteke eskaera-orria. Udalak errotulazio gastuen %70 finantzatu du

euskara hutsez egiten bada. Euskaraz gain beste hizkuntza batzuk erabiliz gero, aldiz, %35 finantzatu du euskarri berriketa. Dena dela, guztira 2.000 euro baliatuko ditu tokiko erakundeak. Gauzak hala, eskaera kopuruaren arabera izango da establezimendu bakoitzari emango zaion dirua.


Diru-laguntzak jasotzeko, beharrezkoa izango da errotulazioak aurten egitea, abenduaren 31 baino lehen.

## Urduña

## Jai Alai frontoiari kolorea eman diote auzolanean

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Auzolana egin dute gaur Urduñako Jai Alai udal pilotalekuan. Frontoiko barandak eta hormak margotu dituzte, eta kanpoaldeko horma ere garbitu dute. Auzolan taldeko kideek positiboki baloratu dute eginiko lana. "Hamar lagun bildu gara eta giro ona egon da", adierazi du taldeko kidea den Eneko Calejero Beldarrainek.

Urte hasieran aktibatu zuten berriro Urduñako Auzolan taldea. **Aiaraldea.eus**

*Berriz ere bizi, sentitu, gozatu eta dastatu Aiaraldean!*

- Azaroak 7:** 12:00 Showcookinga Amurrion Luis Angel Plagarorekin (Sukalki).  
17:00 Likorearen Museoaren bisita Amurrion.
- Azaroak 13:** 10:00 Ate irekien jardunaldia Gure Ahaleginak eta Artomaña upategietan.
- Azaroak 20:** 12:00 Showcookinga Laudion Zigor Iturrietarekin (Txoriene).

**Txakolinarekin zerbitzatutako menuak zozketatuko dira, parte hartu azaroaren 1etik 21era!**

**Erreserbak:** [www.aiaraldea.org](http://www.aiaraldea.org)





# herriz herri

## Laudio

Laudioko 27 elkartek garbiketa ordenatza aldatzeko mozioa aurkeztu zuten urriaren 25ean burututako Udal Osoko Bilkuran, kartelak eta pankartak jartzea 1.500 euro arteko isunekin zigortzen dituelako. Herritar ugari bertaratu ziren Udalbatza aretora, eztabaidaren nondik norakoak jarraitzera. EAJ eta PSEren aurkako botoek galarazi egin zuten testuaren onarpena.

# Adierazpen askatasuna izan zuten eztabaidagai urriko Udal Osoko Bilkuran



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Adierazpen askatasunaren gaiak hartu zuen erdigunea urriaren 25ean Laudioko Udaletxean egindako Udal Osoko Bilkuran. Izan ere, garbiketa ordenantza aldatzeko mozioa aurkeztu zuten herriko 27 elkartek. Egun indarrean dagoen kale garbiketa eta hondakin bilketako udal ordenantzak arau hauste larritzat jotzen du kartelak eta pankartak baimenik gabe jartzea, eta 750 eta 1.500 euro arteko isunak proposatzen ditu.

Honen aplikazioa jarraiki, azken urtean herriko hainbat eragiletako kideak identifikatu eta isundu dituzte "kartelak eta pankartak jartze hutsagatik", mozioa aurkeztu duten elkarteek ziurtatu dutenez. Horien artean daude Ernai Gazte Antolakundeko eta Laudioko Mugimendu Feministako kideak. Hain zuzen ere, mugimendu feministak 3.000 euroko zigorra jaso zuen Martxoaren 8ko kartelak jartzeagatik. Gauzak horrela, kale garbiketa arautzen duen ordenantza aldatzearen beharraz hausnartu eta hau egikaritzeko mozioa aurkeztu zuten ohikoan kalean kartelak jartzen dituzten ia 30 eragile sozial, kultural eta politikok. Zehazki, kartelak eta pankartak jartzeagatik zigorrak ezartzea arautzen duen ordenantzako puntua ezabatzea proposatu zuten udal ordezkarien aurrean. "Udal honek ez dezan berriz inor zigortu adierazpen askatasuna erabiltze hutsagatik" azaldu zuen Josune Fernandezek mozioaren defentsan. Kaleak guztionak direla aldarrikatzen zuten kartelak eskutan, Fernandezekin



"Kaleak guztionak dira" aldarrikatzen zuten kartelak eskutan, Udalbatza aretoa bete zuten dozenaka herritarrek. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

batera Udalbatza aretoa bete zuten dozenaka herritarrek.

### Oinarrizko eskubideen defentsa

Udalan ordezkariak duten talde politikoen artean orotarikoak izan ziren iritziak. Loli Muriel PSEko bozeramaileak herritarrek herri garbi bat izateko duten eskubidea azpimarratu zuen, udal ordenantza hori bermatzeko dagoela ziurtatuz.

Omnia adierazpen askatasuna oinarrizko eskubide bat dela azpimarratu zuen. "Guk askotan defendatu dugu Laudio garbi bat nahi dugula, baina adierazpen askatasuna horren gainetik dagoen zerbait da. Azken finean, adierazpen askatasuna funtsezko eskubidea da. Bestea, aldiz, kontu estetiko hutsa", adierazi zuen Alvaro Barriosek bere hitzartzean. EH Bilduk ere

bide beretik jo zuen, herritarrek adierazpen askerako duten eskubidea defendatuz. "Toño Aizen garaietara" ez bueltatzeko eskatuzion Nagore Gomarak Ander Añibarrok zuzentzen duen Udal Gobernuari. Legealdi horretan zigor ugari jarri ziren kale garbiketa ordenantzaren aplikazioan, eta herritar bat kartelak jartze hutsagatik espetxeratua izan zen, Gomarak azaldutakoaren arabera. Hitzek eztabaida piztu zuten zinegotzi abertzalearen eta alkatearen artean.

EH Bilduk ordenantza aldatzeko hainbat proposamen ere mahaigaineratu zituen, hala nola kartelak kentzeko egun jakin bat zehaztea (elkarteek deialdien berri noiz eman dezaketen aurreikusitakoak) eta adierazpen liberako guneak atontzea gaur egungo

propagandarako espazioak konpontzearekin batera. Horretarako urtero diru partida bat bideratzea proposatu zuen.

Ander Añibarrok itxi zuen hitzartzearen lehenengo txanda. Mozioan zein bestelako tokitan azaldutakoaren aurka, ukatu egin zuen azken urtean jarritako isunak udal gobernua propio jarri zituenik. "Isun horiek udaltzaingoaren buruak tramitatzen ditu. Prozedura administratibo bat jarraitzen da, ez politikoa. Herritar guztiei berdin aplikatu zaie ordenantza, ez dugu erabakitzen nor zigortu eta nor ez", defendatu zuen alkateak. Propaganda jartzeko espazioetatik kanpo kartelak eta pankartak jartzeko eskaera guztiak onartu dituela ere ziurtatu zuen gobernuburuak.

Iraia Pereiro Laudioko Mugimendu

Feministako kideak erantzun zien bozeramaileen adierazpenei, mozioa babesten zuten eragile guztien izenean. Kartelak jartzen zeudela identifikatuak izan diren herritar guztiek isuna jaso ez dutela ziurtatu zuen Pereiok, ordenantza aplikatzeko erabilitako arbitrariotasuna salatuz. Gainera, zenbait kartel beste batzuk baino lehenagokentzen direla azaldu zuen: "Garbiketa selektiboa egiten da".

### Eztabaidarako oinarriak

EH Bildu eta Omniaren aldeko botoak ez ziren nahikoa izan EAJ eta PSEren ezezkoari aurre egiteko. Laudioko elkarteek aurkeztutako mozioak aurrera egin ez zuten arren, mugarrira jarri zuen kale garbiketarako ordenantzaren aldaketaren inguruko eztabaidan.



## Laudio



**HUGO GARCIA VARGAS**

GURASOA

### Kaka zaharra!

Azkenaldi honetan, umei barregura ematen dien esaera hau nahi baino askoz gehiagotan esan eta entzun izan dugu Aretako herritarrok. Izan ere, egunero eramaten du umeren batek etxera "oparitxo" itsaskorren bat bertako parketik. Eta, norenak dira? Txakurrenak, noski.

Barregaria iruditzen zaizu? Zoriona ekartzen duela kaka zapaltzeak? Bada zin egiten dizut ez dela batere barregaria zotz batekin zure seme- alabaren oinetakoen zoletatik gorotza ateratzea. Bat ere ez. Eta zorte txarra nahiago.

Tamalgarriak zein ohikoak dira Aretako parkean gurasoen oihuak: "Kontuz txakur kakekin!" Eta umeak belarretan saltoka ikustea, alde batetik bestera, 1990. hamarkadako 'Humor amarillo' saio famatuan ibiltzen ziren moduan.

Baina ez da leku bakarra, aspalditik Bide Zaharretatik osteratxo bat egitea "ezinezko misioa" bihurtu da lurrera begiratu gabe. Espaloitik zein bidegorritik saihesten ibiltzea kirol bihurtu da. Baita txakurren jabe batzuentzat modan jarri den Aretako eskolara doan bidetik ere. Bertan, egunero, bai lorategi txikian landatuta bai bidean ere lau hankadun lagunak arrasto freskoak topatu ahal ditugu.

Hain larria bihurtu da egoera non eskolak berak, zein Guraso Elkartek eskolarekin elkarlanean, ekintza bereziak egin behar izan dituzten egoera salatzeke. Besteak beste, argazkiak atera eta txostenak bidali dituzte udalera. Azkenik, Guraso Elkartek bultzatuta, eta txakurren jabeak kontzientziazteko asmoz, eskolako bidean eta lorategian bertan, ikasleek ekoiztutako kartelak jarri izan dituzte. Hala ere, momentuz, eragin gutxi izan dute ekimenek, eta erantzun lotsagarri batzuk jaso dituzte gainera. Benetan lotsagarriak.

Esan bezala, egoera hau aspalditik dator. Udalak hainbeste maite dituen Auzo Batzarretara askotan eramane da gaia eta Aretako herritarrek zein eskolako Guraso Elkartek beste hainbestetan udalera deitu dute honen berri emateko. Eta zein izan da honek ematen duen erantzuna edo konponbidea? Bada txakurren kakak jasotzeko poltsak jartzea edota, egoera ikustekotan, txakurren jabeak salatzea. Lehenengoa, ikusi denez, ez da eraginkorra. Poltsak aspalditik daude eta arazoak hor jarraitzen du. Eta bigarrena, herritarra herritarren kontra. Benetan satorraren ipuinean bezala, kaken jabea bilatzen hasi behar gara? Herritarrek, momentuz, ez gara poliziak. Ez dakit noiz arte.

Konponbidea erraza da, txakurraren jabeak jaso dezala, nik argi daukat. Berea da txakurra, berari dagokio. Sinplea bezain azkarra. Baina, norena da erantzukizuna? Txakurrarena? Jabearena? Udalarena? Hau ere argi daukat: erantzule nagusia jabea da. Baina bakarra ote da? Eta, orduan, zer egin? Parkea eta eskolako bidea txakurrentzako debekatu? Txakurrentzako toki berezia bat sortzea? Neurri ezberdinen konbinazioa agian? Ez dakit eta ez dagotik erantzuna ematea, baina bitartean egoera pairatzen dutenak umeak dira. Ezin dira eskolara lasai joan? Ezin dira askatasunez parkean jolastu?.

Argi dagoen gauza bakarra da ahalik eta lasterren egoera hau bukatu behar dela. Nik ere, umeek bezala, barre egin nahi dut kaka hitza entzuterakoan, eta ez txakur jabe hezigabeez gogoratu.

## Ellakuriko basoa argiztatzeko kanpaina abiatu du Kirikiñok

Testua

**Txabi Alvarado Bañares**

Urrian aurkeztu zuen Kirikiñok Ellakuriko ortuen alboan atondu duen basoa. Orain, kanpaina abiatu dute aisialdi taldeko kideek, espazio horretan argia jartzeko, eguzki plakadun fokuak baliatuta.

Zozketa abiatu dute horretarako. Faktorian eta Bazter zein Gorbea tabernetan eskuratu daitezke tiketak.



Ellakuriko zelaien alboan atondu du Kirikiñok basoa. Aiaraldea.eus

## bakoitza garrantzitsua da

- |                                   |                                   |   |
|-----------------------------------|-----------------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> pertsona | <input type="checkbox"/> emakumea | <input checked="" type="checkbox"/> ekintza |
| <input type="checkbox"/> herria   | <input type="checkbox"/> botoa    | <input type="checkbox"/> proposamena        |

**Bai, bozkatu!**

araba álava  
foru aldundia diputación foral

Azaroak 21  
Arabako Kontzejuetarako  
hauteskundeak 2021



# herriz herri

## Amurrio

### Amurrioko tren geltokiko lanen esleipena abiatu dute

Testua  
Aitor Aspuru Saez

ADIF enpresa publikoak urrian abiatu zuen esleipena tren geltokian lanak gauzatzeko. Obra horren xedea da irisgarritasuna bermatzea mugikortasun arazoak dituzten erabiltzaileei.

Horretarako, proiektuak honako jarduera hauek barnebilduko ditu: lur azpiko pasabidea eta arrapalak eraikitzea, igogailuen instalazioa,

nasen zabalpena eta altuera igotzea eta argiteria aldatzea. Halaber, markesina berria jarriko dute. Guztira, 2.067.643,21 euroko aurrekotua proposatu du ADIFek eta urtebeteko iraupena izango dute lanek.

Amurrioko zinegotzi sozialista den David Romerok mezua zabaldu du adierazteko obra horien esleipenak erakusten duela Pedro Sanchezen Gobernuak konpromisoa duela

Aiaraldearekin. Amurrioko EAJk ere oharra plazaratu du obren balorazioa egiteko. Jeltzaleek positiboki baloratu dute obrak hasi izana, baina nabarmendu dute duela "urte asko" egon behar zirela eginda. Horregatik, "jarraipen zorrotza" egin diote prozesuari. Gogorazi dutenez, proiektu hau Espainiako Estatuko 2017ko Aurrekontu Orokorretan sartuta zegoen, jeltzaleen eta sozialisten arteko akordio bati esker.

### Irlandan egon dira Amaurre Ikastetxeko hainbat gazte, hizkuntza gutxituak lantzen



Claremorris udalerrian egon da Amaurreko ikasle talde bat. Amaurre

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Erasmus+ programa baliatu dute Amaurreko zenbait gazteek Irlandara jotzeko. Hain zuzen, Claremorris herrian egon dira eta hango familiek hartu dituzte. Urriaren 17an joan eta 24an itzuli ziren eta eurekin joandako irakasleak, Leire Robina eta Olaia de Lorenzo, oso pozik daude emaitzekin. Biek azpimarratu dute hasieratik saiatu direla gainerako ikasleekin ingelesez egiten eta euren artean euskara baliatu dutela.

Berez, ingelesa ikasteko tresna egokitzen jo zuten biek Erasmus+ programara. "Modu naturalagoa behar genuen ingelesez hitz egin zezaten, eta ekimen hau aproposa iruditu zitzaigun", nabarmendu du Robinak.

#### Hizkuntza gutxituak

Parte-hartzaileen artean ingelesa erabili badute ere, Erasmus+ programaren ardatza hizkuntza gutxituak izan dira. Batu diren herrialdeak euren hizkuntzak biziberritzeko prozesuetan murgilduta daude.

Modu horretan, Amurrioko gazteek euskarari eta euskal kulturari buruzko ezagutza partekatu dute euren kideekin. "Aukera bikaina izan da euskal kulturari sakontzeko

eta informazio gehiago bilatzeko. Izan ere, euskal kulturaren hainbat elementu oso barneratuak ditugu, baina beste batzuk ez. Modu honetan, izan dugu parada hori lantzeko", azaldu du Olaia de Lorenzok.

Irlandan egon arren, ez dute hango kultura jorratu soilik. Herrialde guztien ondare kulturalaren zati bat ezagutzeko aprobetxatu dute egonaldia. Oro har, esperientzia oso modu positiboan baloratu dute irakasleek: "Ikasleei nabaritzen zaie pozik daudela".

#### Hurrengo geltokia, Finlandia

Eramus+ programak amurriarrak eramango ditu Finlandiara eta Maltara eta, aldi berean, hango ikasleek bisita egingo diote Aiardeko udalerriri. Hurrengo bidaiak Finlandiara izango da eta datorren ikasturterako utziko dute Malta.

Irteera horietan, printzipioz, beste ikasle batzuek parte hartuko dute, ekimena ahalik eta gehien zabaltzea baitute helburu.

Amaurrek jasoko duen bisitari dagokionez, Leire Robinak azaldu du oraindik ez dutela gutziz prestatu, baina aurreratu du Irlandan zenbait ideia hartu dituztela. Olaia de Lorenzok, bere aldetik, ziurtatu du tokiko kulturak eta ohiturek izango dutela lehentasuna: "Hasteko, pilotan jolasteko palakoparitu genituen, argazkietan ikus daitekeen moduan".

## AIARALDEKO EMAKUME\* SORTZAILEEN AZOKA



AZAROAK 20 LARUNBATA  
AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAN

12:00-20:00 TOKIKO EMAKUME EKOIZLEEN AZOKA FAKTORIAN

12:00 DINAGU KOLEKTIBOAREN AURKEZPENA

13:00 AURKEZPEN MARATOIA

13:00-16:00 EMAKUME EKOIZLEEN PRODUKTUEN BAZKARIA

21:00 KONTZERTUA: ENERITZ FURYAK



# AZAROAK FAKTORIAN

www.faktoria.eu  
faktoria@aiaraldea.eu  
688 647 942

MUSIKA ● ANTZERKIA ● ELIKADURA ● HAURRAK ● FEMINISMOA ● EKONOMIA

## IKUSKIZUNAK



Azaroak 12, barikua 19:30ean  
**TUBACEX.** HILABETE LANEAN

Tubacexeko kaleratuen zerrendan zeuden bost behargin elkarrizketatu zituen Aiaraldea Komunikabideak iragan martxoan. Orain, mahaingurua antolatuta da langile berdinekin, arrira arte lasatu zen greba mugagabearen bizipen eta anekdotak gogora ekartzeko

Azaroak 25, eguena 19:00etan  
**IZARKOM;** EUSKAL HERRIKO TELEKOMUNIKAZIO OPERADORE KOOPERATIBOA

Telekomunikazio zerbitzuak eskaintzen dituen irabazi asmorik gabeko Izkom kooperatibaren eta Onaro, Oñatiko Udalak sortutako telekomunikazio operadorearen aurkezpena

Azaroak 01, eguaztena 19:00etan  
**GOIENER;** ENERGIA BERRITZAGARRIEN SORKUNTZA ETA KONTSUMO KOOPERATIBA

Zer da Goiener? Zergatik kontratatu argindarra irabazi asmorik gabeko erabiltzaileen kooperatiba honetarako? Zer dira energia komunitateak? Energiaren sorkuntza proiektuak Euskal Herrian, eta Aiaraldea, zer?



Azaroak 6, zapatua 20:30ean  
**ABEREH** AFARI MUSIKATUA

Aberreh Erik Bergazaren bakarka aritzeko ezisena da. Zarata eta burrunbati aldentuta baina distorsioa gustatzen gabe rock edo grunge akustikoko emanaldia eskainiko du Faktorian. DOAN.



Azaroak 07, domeka 18:00etan  
**ERRESISTENTZIA ARAZO FISIKOAK DA**

Matte Aizpuru Olasolaren eskutik. Antzerki-performantzia. Sententzia medikoa, bilerak okerrak, desinak ironikak eta disiplinamendu arketak gaitzatsen diren geroakua arakatzeko parada. BAZKIDEAK: 10 € / EZ-BAZKIDEAK 12 € / LANGABETUAK ETA IKASLEAK 7,5 €



Azaroak 13, zapatua 20:30ean  
**BI ZALDI** AFARI MUSIKATUA

Bi Zaldi 2014ean Zaldibin sortutako taldea da. Gartzot Unain Letonak (ahotsa) eta Beñat Antxustegi Goikoetzak (ahotsa eta gitarra) osatu zuten hasiera batean, 2016ean Eneko Sierra Lataillade batu zen arte. DOAN



Azaroak 14, domeka 17:30ean  
**ZIRKULANDUZ** MUSIKA ETA AKROBAZIA

"Beldurrik ez" ikuskizun emozionala, familia guztiari bideratuta dago. Biolinaren eta pianoaren bitartez bide eder bat zabalduko digute. Trapeziaren bitartez mundua ezagutzeko istorioa. Bi pertsonaien arteko benetako harremana, laguntasunaren erakusgarria. BAZKIDEAK: 6 € / EZ-BAZKIDEAK 3 €



Azaroak 20, zapatua 21:00etan  
**ENERITZ FURYAK**

Eneritz Furyak (Irati, 1993). Kasernat taldearekin aurkeztu zituen lehen aldiz berak idatzitako kantuak, baina ondotik bakarkako ibilbideari heldu eta dagoeneko hiru diska kaleratu ditu. BAZKIDEAK: 6 € / EZ-BAZKIDEAK 8 €



Azaroak 21, domeka 18:00etan  
**TRIBIZ, BASERRI GALDUA**

Jon Ander Urresti (Bermeo, 1992). 700 artetik gora dituen Biskaiko baserri zaharrenaren aurrean bizi naiz, atez-ate. Edo honetaz geratzen den hari eta haga erorien aurrean (...). BAZKIDEAK: 10 € / EZ-BAZKIDEAK 12 € / LANGABETUAK ETA IKASLEAK 7,5 €



Azaroak 27, zapatua 20:30ean  
**KANTU-AFARIA**

Kantuak eta musikak bihotza betetzen digute. Kasu honetan, sabelerako ere gozagarri izango zaigun afariak lagunduta kantatuko dugu, tokiko produktu ekologikoein kositutako janariarekin. BAZKIDEAK: 12 € / EZ-BAZKIDEAK 15 €



Azaroak 20, zapatua 12:00etatik 20:00etara  
**AIARALDEKO EMAKUME SORTZAILEEN AZOKA**

Aiaraldeko emakume sortzaileen postuak, aurkezpen maratoia, emakume ekoizleen produktuekin osatutako bazkari eskaintza, eta iluntzean, azoka batutakoan, Eneritz Furyak bakarariaren kontzertua. DOAKO SARRERA

BERBALDIK

KOKORIKO JARDUERAK



Azaro eta abenduak martitzen eta eguinetan 10:00etatik 12:00etara

**HAUR ETA FAMILIA GUNEA**

Familientzako bereziki prestatutako gunea, estalpean eta gosotasunean jolasteko eta lasai egoteko. Haurrak jolastu dauden bitartean goxo egoteko, lan egiteko, irakurtzeko, sortzeko, familian jolasteko, ... espazioa. Jolaserako proposamen eta material ezberdinak eskainiko dira haurren behar eta adinera egokituak. BAZKIDEAK: 3 € / EZ-BAZKIDEAK 5 €



Azaroak 06, zapatua 17:30ean

**FAMILIAN JOLASEAN AZALERAKO IPUINAK ETA JOLASAK**

Masajen eta jolasaren bidez familia eta seme-alaben arteko komunikazioa eta harreman afektiboa landuko ditugu. Horretarako, hainbat baliabiderekin jolatu eta esperimentatuko dugu: ipuinak, jolasak, kantar, erluzazioa, masaje zuzena zein ez-zuzena, ... familian jolasteko beste modu bat, gurekin jolatu nahi? DOAN



Azaroak 07, domeka 11:00etan

Azaroak 21, domeka 11:00etan  
**0-3 URTE ESPAZIO ASKEA**

Mugimendu autonomorako eta jolas liberarako espazio zaindua. Profesional baten laguntzarekin behaketa jarriko dugu ikuspuntua. Familian gozatzeko espazioa, beste familiekin elkargunea. Ordutegia malguta da. BAZKIDEAK: 6 € / EZ-BAZKIDEAK 8 €



Azaroak 10etik Abenduak 1era, eguaztenetan 11:00etan

**HAUR MASAJEA IKASTAROA**

0-12 hilabeteko haur eta haien guraso/itortzeentzat bideratutako ikastaro praktikoa. Larruzala lehenengo hizkuntza delako, atxikimendu afektiboa elkarrekin eta indartuko dugu. Bestelako onura fisikoa eta psikikoa dituen arren, familian bestelako harremanak erakitzeko eta zaintza partekaturako bidean tailer ezin hobea. BAZKIDEAK: 80 € / EZ-BAZKIDEAK 90 €



Azaroak 13, zapatua 16:30ean

**KOKORIKO LUDOTEKA**

4-10 urte bitarteko haurrentzako Faktoriako Ludoteka zerbitzua. Bertan, jolas eta dinamika ezberdinak proposatuko ditugu. Egun bakoitzean gozatzeko modu ezberdin bat bisiko dute haurrak. Oraingoan SUKALDARITZA tailerra egingo dugu. Gure ingurua ezagutzeko beste modu bat. Jakiak deskribitu eta gozatzeko aukera ezin hobea. DOAN



Azaroak 26, barikua 18:00etan  
**NERABEENTZAKO ARGAZKILARITZA DIGITALA**

Multimedia tailer praktikoa. Jolas eta dinamika ezberdinekin teknika eta baliabide ezberdinak ezagutuko ditugu. \*Aiaraldea Hedabideko profesionalak bideratutako tailerra. DOAN



Azaroak 28, domeka 10:30ean

**NEGUKO TRUKE AZOKA**

Etxean ditugun eta erabiltzen ez ditugun jostailuak trukatzeko espazioa. Trukearen bidez bi helburu lortu nahi ditugu: jostailuei bigarren biziua ematea eta kontsumo ohiturak aldatzea. Jostailuak biltzeko gune ezberdinak jarriko ditugu eskualdeko herrietan, truke txerriak banatuko ditugu eta azoka egunean beste jostailu batzuk jasotzeko aukera egongo da. Hori eta askoz gehiago... familia giro ederra! DOAKO SARRERA

## EKONOMATUKO JARDUERAK



Azaroak 26, barikua 19:30ean  
**BOGA GARAGARDOEN DASTAKETA BERTSOTAN**

Boga garagardoak dastatzeko aukera paregabea, Faktoriako Bertso eskolako kideek bertan kontaktatu dituzte garagardo bakoitzaren istorioa eta bereiztasunak. Doinu ederrak, erriak, edatekoa eta jatekoa ostiral arratsalde iluntzean. 19:30etatik aurrera. Faktoriako plazan. BAZKIDEAK: 8€ / EZ-BAZKIDEAK 10€

Azaroak 27, zapatua 16:30ean  
**OGI ARTISAUUA ETA AMA-OREA**

Zerk egiten du ogi bat osasuntsu? Zer da ama-orea eta nola egin dezakegu etxean? Hartidura luzeko ogi artisauen tailer hau Iza okindegiko Aida Fuentes Izak eskainiko du.

### EKONOMATUA

Astelehenetik barikua 11:30 - 14:00 / 17:00 - 20:00  
Zapatuetan 10:30 - 14:00

722 846 762 ekonomatua@aiaraldea.eu

### KANTINA

Ekonomatua irekita dagoen ordutegian eta Kultur emanaldiak dauden guztietan irekita egongo da

722 846 762 kantina@aiaraldea.eu





# elkarrizketa

## “Film batean ikusten den guztia da artea”



**LEIRE ORUETA GOMEZ** (Laudio, 1997) BARTZELONAN BIZI DA ETA HAINBAT FILMETAN EGIN DU LAN, ARTE SAILETAN (GOIKO ARGAZKIAN BERE LANTALDEAREKIN DAGO, ESKUMAN). *ÉRASE UNA VEZ EN EUSKADI* PELIKULAN ARITU ZEN, ETA NETFLIXEN AURREKONTU HANDIKO EKOIZPEN BATEAN MURGILDUTA DAGO ORAIN.



Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

**Duela hiru urte elkarrizketa egin genizun, Arte Ederretako beste ikasle batzuekin Laudioko Kultura etxean egin zenuen erakusketa bat dela eta. Orain, hiru urte beranduago, Bartzelonan bizi zara, eta hainbat filmren arte sailetan egin duzu lan. Nola aldatu da zure bizitza?**

Ilustrazioa ikasteko jo nuen Bartzelonara. Publizitate eta prentsa alorrek nituen gustuko. Erakusketa askora gerturatzeko hasi nintzen, eta eszenografia klaseetara ere joaten hasi nintzen, baina entzule moduan soilik. Asko gustatu zitzaidan eta amaitzean erakusketa bat egin nuen klasekideekin. Praktikak argialetxe batean egitea proposatu zidaten, eta ezetz esan nuen azkenean, arte sailen ikasketak egin nahi nituelako, zinema eskola batean.

Arte zuzendari batek nire lana, ikusi zuen erakusketan eta *Érase una vez en Euskadi* filmaren grabaketara gonbidatu ninduen. Hilabete egon nintzen bertan, eta azkenean grabaketa osoan geratzeko esan zidaten.

Aurten arte saileko masterra amaitu dut, eta horren ostean *Modelo 77* filmean hartu dut parte, pintura sailean. Oso lan gogorra izan da fisikoki,

baina taldearekin oso gustura egon naiz. Oso pelikula ona izango dela uste dut. Orain beste ikus-entzunezko batean nago lanean, *Bird Box* filmaren *spin-off*-ean. Aurrekontu handiko lana da, nazioarteko plataforma digital baterako sortua, eta nabaritzen da: baliabide asko ditugu eta gauza oso handiak egin ditzakegu. Azpisail bat dago autoetarako bakarrik, adibidez.

Dena den, gustuko dut film txikietan lan egitea, jende guztia ezagutzen duzulako eta familia giroa sortzen delako. Ekoizpen handietan, aldiz, dena da hierarkizatuagoa.

**Zertan datza pelikula bateko arte departamentuaren lana?**

Filmaren gidoi edo liburua irakurri eta bere mundu bisuala sortzean datza. Oso gauza zaila da, ideia idatziz jasotzen dugulako eta errealitatean egikaritu behar dugulako. Zenbat dekoratu dauden, zer material erabili daitezkeen, istorioa non gertatzen den, ze rkolore agertzen diren... hori guztia zehazten dugu, eta lana zatitzen dugu gero, azpisail guztien artean. Mota askotako azpiatalak daude: pintura, dekorazioa, kudeaketa, logistika, marrazketa teknikoa, atrezzoak, grabaketako arte departamentua...

**Zenbat jende zaudete departamentuan lanean?**

Bideoklip autogestionatu baten grabaketan hartu nuen parte, eta bertan 6-7 kide ginen taldean. Filma txiki batean 15 pertsona inguru egon daitezke eta tamaina ertaineko batean 50. Orain egiten ari garen filma aurrekontu handikoa da, eta ia 100 kide gaude arte sailean.

**Zertan datza zehazki zure lana?**

Dekorazioan eta pinturan aritu naiz batez ere. Pintura saileko kideok plato edo eszenatokietan egiten dugu lan, gauzak margotzen. Elementuak irudikatu behar ditugu, gezurrezko oxidoa edo hezeguneak, adibidez.

Dekorazioan, aldiz, arte zuzendariak ideia bat ematen digu eta guk proposamenak egin behar dizkiogu, ideia hori errealitate bilakatzeko.

**Erase una vez en Euskadi filma 1980ko hamarkadako Euskal Herrian girotuta dago. Zein izan zen erronkarik handiena grabaketan?**

Niretzat zailena hastea izan zen. Oraindik ez nuen masterra amaituta eta ez nekien ezer zinemari buruz. Ez nekien gidoi bat ondo irakurtzen, ezta arte sailak nola funtzionatzen zuen ere.

Paperean zegoena errealitateara eramatea oso zaila iruditzen zitzaidan, kostatzen zitzaidan ulertzea



## elkarrizketa

aurkitzen ez dituzun gauza zure kabuz sortu ditzazkezu. Arte sailaren lana ez da soilik pantailan ikusten dena. Logistikak ere pisu handia du: materialak nola garraiatu, muntaketa lanetarako jendea lotu... dena errodaje ordurako prest egon dadin.

### Aurrekontuak ere pisu handia du, ez?

Bai. Departamentuan persona bat dago kontuak eramaten. Gastu asko daude, filman ikusten den gauza oro delako artea. Autoak ikusten badira, edo armak, edo armairuak, edo sua... hori guztia arte sailetik igarotzen da.

### Zinema aretoetan estreinatuta berri da *Érase una vez en Euskadi*. Pozik zaude emaitzarekin?

Asko gustatu zait. Nire lehen filma izan da eta asko ikasi nuen, oso esperientzia positiboa izan zen. Familia bat sortu genuen saileko kide guztien artean, egunero geundelako elkarrekin, hamaika orduz. Horregatik, oso polita da guztion artean eginiko lana ikustea.

### Taldelana funtsezkoa da, beraz.

Bai, erabat.

### Horren lantalde handiak izanda, badago tarterik norberaren sorkuntza filmean islatzeko?

Normalean tarte handia dago, gidoian gauza asko ez daudelako zehaztuta, objektuak eta ekintzak baino ez.

Arte zuzendariaren lana da hori guztia imajinatu eta diseinatzea. Gero guk proposamenak egiten ditugu horren gainean, baina zuzendariak du azken hitza sormenari dagokionez. Gure lana berari laguntzea da, bere ideiak errealitate bilakatzeko.

### Film baten grabaketan murgilduta zaude orain. Zinemagintzan jarraitzeko asmoa duzu etorkizunean?

Bai. Bideoklipak ere grabatzen nago. Oso gustuko dut hori, lan-talde ederra sortu dugulako horretarako. Modu autogestionatuan egiten dugu guztia.

Ez da lana berez, momentuz ez dugulako dirurik irabazten, baina oso gogoko dut, oso gauza familiarra delako eta ikusten duzulako zure esfortzuak zure izena eta zure lagunena daramala.



Hainbat filma eta bideoklipen grabaketan parte hartu du Leire Oruetak. L.O.

## FILMAK


Hainbat filmetako arte departamentuetan aritu da Leire Orueta.

### *Érase una vez en Euskadi*



Urriaren amaieran iritsi zen zine-aretoetara 1980. hamarkadako Euskal Herrian girotutako filma.

### *Modelo 77*



Filmaren grabaketa amaitua dago eta 2022an estreinatuko dute.

### 'Bird box'-en 'spin-off'-a



*Bird Box* filmaren 'spin-off'-aren grabaketan murgilduta dago orain Leire Orueta. Netflixek plazaratuko du ikus-entzunezkoa.





## Bost kontzertu, azaro eta abenduan, **Burubio aretoa lehertzeko**

Burubio musika espazio eta elkarteak udazkeneko egitarauaren berri eman du dagoeneko. Guztira, bost saio eskainiko dituzte Amurrioko industriaguneko aretoan abendua bitarte. "Ez galdu urte amaierara arte prestatu dugun programazioa, laster arte!", adierazi dute sare sozialetan. Sarrerak Internet bidez erosi ahaliko dira, Eventbrite atarian.

10 taldek igoko dira oholtzara, euren zuzenekoak zaleei eskaintzeko: azaroaren 20an Endeathed, Nakkiga eta Sons Of Decay; azaroaren 26an Liher; abenduaren 3an La Excavadora eta Yugular; abenduaren 10ean Cobra; eta azkenik, abenduaren 17an Knives, Name Off eta Lotura. Besteak beste, Liher taldeak bere azken lana aurkezteko baliatuko du Amurrioko kontzertua.

Duela bost urte sortu zuten Burubio proiektua, entsegulokalak grabaketa estudioa eta kontzertuetarako aretoa eskaintzeko eskualdeari. Geroztik, makina bat jaialdi eta ekimen burutu dituzte bertan: taldeen disko grabaketak, kontzertuak... Horrez gain, Amurrioko kontzertu sorta eskaini izan dute udan zehar. Amurrioko lehiaketa ere antolatu dute taldeen sorkuntza lanak sustatzeko.

### MUSIKA

**11.12 Ostirala**  
19:00 OROZKO  
**GORBEIA: KANTUAK ETA KONTUAK**  
Gontzal Mendibil eta Iñaki Garcia Uriberen emanaldi musikatua  
Donibane Aretoa

**11.14 Larumbata**  
20:30 LAUDIO  
**AFARI MUSIKATUA: BI ZALDI**  
Faktoria

**11.14 Igandea**  
19:00 LAUDIO  
**SANTA LUCIA ETA ANDERE ABESBATZAK**  
Udazken musikatua egitarauaren barruan  
San Pedro eliza

**11.14 Larumbata**  
23:00 AMURRIO  
**TRUETOX TA KITTO**  
Txokogorri

**11.20 Larumbata**  
20:00 LAUDIO  
**BI HOTSAK ABESBATZA**  
Udazken musikatua egitarauaren barruan  
San Pedro eliza

**11.20 Larumbata**  
20:00 AMURRIO  
**DEATH ETA BLACK METAL KONTZERTUAK**  
Endeathed, Sons of Decay eta Nakkiga taldeak  
Burubio Kultur Elkartea

**11.20 Larumbata**  
20:00 AMURRIO  
**KAI NAKAI**  
Amurrioko Antzokia

**11.21 Igandea**  
19:00 LAUDIO  
**AKELARRE ABESBATZA**  
Udazken musikatua egitarauaren barruan  
San Pedro eliza

### HITZALDIAK

**11.10 Asteazkena**  
18:00 AMURRIO  
**"BREXITA ETA EUROPAR BATASUNAREN ETORKIZUNA"**  
Nagusien Etxea

**11.12 Ostirala**  
19:00 LAUDIO  
**"TUBACEX: HILABETE**

**11.18 Osteguna**  
17:30 URDUÑA  
**BESOETAKO IPUINAK**  
12 eta 36 hilabete bitarteko umeentzat  
Alondegia

**11.20 Larumbata**  
10:30 AIARA  
**ELIKADURA OSASUNGARRIA TXIKIENTZAKO**  
Lantenoko Eskolak

**11.21 Igandea**  
12:00 AMURRIO  
**HAZIARABA**  
Estimulazio artistiko goiztiarrerako landa eremuko jaialdia  
Amurrioko Antzokia

**11.21 Igandea**  
16:30 LAUDIO  
**FAKTORIAN JOLASEAN**  
Izena emateko: 722 22 75 32  
Faktoria

**11.22 Astelehena**  
17:00 OKONDO  
**OPARI EZ SEXISTAK EROSTEKO TAILERRA**  
Okondako eskola

### KIROL JARDUERAK

**11.13 Larumbata**  
09:00 URDUÑA  
**BERDINTASUNAREN ALDEKO GAILURRAK**  
Txarrazora martxa  
Foru Plaza

**11.14 Igandea**  
09:30 URDUÑA  
**URDUÑAKO IV. MENDI LASTERKETA**  
Foru Plaza

**11.14 Igandea**  
08:00 LAUDIO  
**ERMUARA TXANGOIA**  
Goikogane Mendi Taldeak antolatuta  
Audio Institutua

### IKUSKIZUNAK

**11.13 Larumbata**  
20:00 AMURRIO  
**'AMORIA & DOLORE'**  
Kresala dantza taldea  
Amurrioko Antzokia

**11.21 Igandea**  
18:00 LAUDIO  
**"TRIBIZ, BASERRI GALDUE"**  
Alaraldea Ekintzen Faktoriak antolatutako 'Antzerkia eta



## Urduñako IV. mendi lasterketa igandean



Gualdetxu mendi bizikleta eta trail taldeak Urduñako Mendi Lasterketaren IV. edizioa ospatuko du datorren igandean -azaroak 14-. Antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte: 33 kilometrokoa bata, eta 13 kilometrokoa bestea. Lasterketa luzeak 1.750 metroko desnibel positiboa izango du, eta erreleboka egiteko aukera egongo da ere.

## Errefuxiatuentzako oinetako bilketa egingo du Zaporeak elkarteak Orozkon



Grezian harrapatuta dauden errefuxiatuak laguntzeko ekimen berria abiatu du Zaporeak elkarteak eta elkartasun ahalaginak isla izango du Orozkon. Errefuxiatuei janari duina ematea duen Gobernuak Kanpoko Erakundeak kanpaina berezia hasi du eta Orozko izango du laguntzaile. Berez, boluntario orozkoarrek elkartasuna adierazteko aukera emango dute Zubiaur plazan

ostiralean, 17:00etatik 20:00ak arte. Orozkotik Zaporeak Martutenean duen biltegia eramango dituzte jasotako oinetakoak. Ondoren, Euskal Herrian garatzen ari diren kanpaina bukatu bezain pronto, Lesbos eta Atenasera bideratuko dute material guztia.

Hain zuzen, zapatak, botak (edozein motakoak, uretakoak ere izan daitezke) edo zapatilak jasoko dituzte.

## Kartelera



LAUDIOALDE  
ARETOA  
**Dune**  
AZAROAK 13  
LARUNBATA  
(3 euro)  
18:30



DONIBANE  
ARETOA  
**Madres paralelas**  
AZARPAK 14  
IGANDEA  
(4,5 euro)  
19:00



AMURRIO  
ANTZOKIA  
**Mediterráneo**  
AZAROAK 14, 15  
IGANDEA ETA ASTELEHENA  
(3,5/5 euro)  
19:30/20:00



LAUDIOALDE  
ARETOA  
**Miss Marx**  
AZAROAK 20  
LARUNBATA  
(3 euro)  
18:30

**LANEAN"**  
Langileekin solasaldia  
Faktoria

**11.14 Igandea**  
09:30 OROZKO  
"SINTZIETAKO UBIDEA:  
HANDIKERIA BATEN  
HISTORIA"  
Felix Mugurutzak gidatutako  
hitzaldia  
Orozkoko Museoa

**11.21 Igandea**  
11:00 OROZKO  
OROZKO, ATZEGUARDIAKO  
GERRA  
Asier Perez de Euliatek  
gidatutako hitzaldia  
Orozkoko Museoa

**11.22 Astelehena**  
18:00 AMURRIO  
"NOLA EGIN AURRE  
INDARKERIA MATXISTARI  
AISIALDIAN ETA  
KIROLEAN?"  
Aiaraldea Komunikabideak  
antolatutako Solasean  
hitzaldi zikloaren barruko  
solasaldia  
Kultur Etxea

FAMILIA  
JARDUERAK

**11.11 Osteguna**  
17:30 URDUINA  
"LIBURUEKIN OLGETAN"  
Irakurketa kiuba familian  
Liburutegia

**11.13 Larumbata**  
10:30 AIARA  
ELIKADURA  
OSASUNGARRIA  
TXIKIENTZAKO  
Lanteno Eskolak

**11.14 Igandea**  
16:30 LAUDIO  
FAKTORIAN JOLASEAN  
Izena emateko: 722 22 75 32  
Faktoria

**11.16 Astearte**  
17:30 OROZKO  
"AMA KONTAIDAZU  
BERRIRO"  
Ipuin kontalaria  
Liburutegia

**11.16 Astearte**  
17:00 OKONDO  
BIZIKLETA GINKANA  
Gurasolagun egitasmoaren  
barruko ekintza  
Parkea

txokolatea" zikloaren barruan  
Faktoria

BESTELAKO  
EKINTZAK

**11.12 Ostirala**  
17:00 OROZKO  
ERREFUXIATUENTZAKO  
ZAPATA BILKETA  
Zubiaur plaza

**11.13 Larumbata**  
10:00 AMURRIO  
AIARALDEKO BERTINTASUN  
TOPAKETAK  
Lala Aiaraideak antolatuta  
Refor enpresaldea

**11.14 Igandea**  
12:00 ARTZINIIEGA  
BISITA ANTZEZTUAK  
ARTZINIEGAN  
Frontoia

**11.15 Astelehena**  
11:00 LAUDIO  
OINARRIZKO INTERNET  
IKASTAROA  
KZGunea

**11.15 Astelehena**  
17:30 LAUDIO  
BERTINTASUNA KALEAN:  
BIDEOFORUMA  
Kultur Etxea

**11.16 Astearte**  
18:30 LAUDIO  
(YA NO) SOY ESA  
Irantzu Varelaen liburuaren  
aurkezpena  
Kultur Etxea

**11.19 Ostirala**  
17:00 OKONDO  
GURE GENEALOGIA  
FEMINISTAK  
Emagin elkarteak eskainitako  
tailerra  
Kultur Etxea

**11.19 Ostirala**  
19:00 AIARA  
MEDITAZIO IKASTAROA  
Petraenea etxea

**11.21 Igandea**  
12:00 ARTZINIIEGA  
BISITA ANTZEZTUAK  
ARTZINIEGAN  
Frontoia

INFO +  
aiaraldea.eus



# kultura

## “Adarra jotzeko Fermin Muguruzak jarri du ahotsa filmean, batzuentzat maltzurkeriaren ikurra baita”

**KEVIN IGLESIAS** (Amurrio, 1989) ZINEMAREN MUNDUAN SARTUTA DAGO BURU-BELARRI ETA SITGESEN (HERRIALDE KATALANAK) EGITEN DEN JAIALDIAN HIRU LAN AURKEZTU ZITUEN, ARDURA EZBERDINETAN.



Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

**Nolakoa izan da zuen partaidetza Sitgeseko jaialdian?**

Nahiko ona. Inoiz ez dakizu zein izango den ikusleen erantzuna, baina hiru film labur izan ditugu eta hirurek ondo funtzionatu dute publikoaren artean. Egia da Sitgeseko publikoa esker onekoa dela, asko gozatzen baititu proiektioak. Ez dugu saririk irabazi, baina izendatuta egotea saria da jadanik.

**Hiru film aipatu dituzu eta horietako bakoitzean ardura ezberdinak izan dituzu; zuzendari, gidoilari eta ekoizle. Oso ezberdinak dira?**

Bai. Bat egile-zinema da, genero jakina baino,

beldurrezko zinemaren gakoak erabiltzen baditu ere. Hau *Au pair* da, David Perez Sañudorena, *Ane* pelikularen zuzendaria, hain zuzen. Film labur oso berezia da, egile-lana izan arren, nahiko ganberroa da. Espainiako folkloreak elementu ugari hartzen ditu (zezenak, paisaiak...) eta beldurrezko osagaiak bilakatzen ditu. Oso pozik gaude eta ideia horrekin film luzea egingo da orain, Warner eta Antena 3ekin. Ez dakigu noiz eta nola, baina aurkezpen gutuna jada izan da, enpresa horiek interesa baitzuten. Maiz egiten da horrela, lehenik eta behin film laburra, inbertsioa egin dezaten konpainiek film luzerako.

Beste filma *Carnívoro* izan da. Hau genero filma da, zehazki, munstroen azpigeneroa. Hasieran nolabaiteko film politikoa izango zen; ama bat joan behar zen bere

alabaren logelara, honek esaten duelako munstroa dagoela. Kritika politikoa zen, 23-Fko estatu kolpean baitzegoengirota. Tamalez, zuzendariak elementu hori kentzea erabaki du azkenean eta filma geratu da genero hutseko pelikula legez, ez dauka beste irakurketarik eta denborapasa da. Nabarmenena da 6 minutuko plano bakarrean egin dela.

Azkenik, animaziozko film laburra egin dut Pedro Riverorekin batera: *Los días que (nunca) fueron*. Berak esperientzia luzea dauka animazioan, bi Goya irabazi baititu. *El hoyo* filmaren gidoilarietako bat da eta orain bigarren era hirugarren zatia prestatzen ari da.

**Zertan oinarritzen da zuen pelikula?**

Itxialdi garaian etorri zitzaidan ideia, animazioa



## kultura



**“Finean, ni ekoizlea naiz, baina batzuetan gidoi edo zuzendari lanak egiten ditut”**

teknika ona baita itxialdian izandako paranoiak islatzeko. Pedro Riverori proposatu nion ideia aurrera ateratzea eta berak baietz esan zidan, oso ondo moldatzen naiz eta.

Eusko Jaurlaritzak eta EITBk deialdia egin zuten itxialdiari buruzko film kolektiboa egiteko. Izugarri aproposa izan zen, gai hori landu nahi bainuen. Zorte ona izan genuen eta aukeratutako zazpi film laburren artean gurea zegoen.

**Laguntzaile gehiago izan dituzue, Fermin Muguruza, esaterako.**

Egia da gu banatzen ari garen kopia gaztelerazkoa dela. Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz aurkeztu dugu banaketa kanal ezberdinetan. Ingelesekoa momentuz ez dugu egin, baina bai, ordea, gaztelerazkoa eta euskarazkoa.

Gure txantxa izan zen zenbait jende maltzurkeriara lotzen dituen ahotsak jartzea. Pentsatu genuen euskaraz Fermin Muguruza jarriko genuela, hainbat eremutan gorrotatua delako. Adarra jotzeko modu bat da.

Gaztelaniazko harremanetan jarri ginen Antonio Esquiviasekin. Bikoizle oso ospetsua da. The Simpsonen Bob bigarren mailako antzezleari ahotsa jarri zion eta Frasier ere izan zen izen bereko telesaioan. Berarekin lan egiteko gogoak nituen aspaldi, oso gogoko baitut bere lana.

Fermin Muguruzak karisma handia dauka, baina ez da bikoizlea eta, ondorioz, gaztelerazko bertsioa erabili ohi dugu. Hala ere, hainbat jaialditan banatuko dugu euskarazko kopia eta ETB-1ean emango dute.

Fermin oso animatua da eta, dakizuenez, orain animazio filmetan buru-belarri ari da. Gainera, Pedoren laguna da eta bi aldiz aurkeztu ditu bere filmak Bilbon, Pedoren Animakom jaialdian. Oso lagun minak dira eta arriskutsuak Bilboko gauean!

**Non ikus daiteke *Los días que (nunca) fueron?***

Zinemaldian ikusgai egon zen, Zinemira atalean. Gero Zinebin egon da eta Filmin-en ere egongo da zortzi edo bederatzi egunez. Albaceteko Abycine jaialdirako hautatuak izan gara eta hitzarmena dute Filmin plataformarekin. Esan bezala, EITBk film kolektiboa sortu eta ETB-1ean eta ETB-2an eskainiko dute.

**Pedro Rivero edota David Perez Sañudorekin egiten duzu lan, zinema belaunaldi berria zarete?**

Egia da zineman oso gazte hasi nintzele lanean eta nire belaunaldikoak edo belaunaldi ondokoak diren zuzendariak eta direla berriak. Dena den, ni itzalean nago beti. Ez daukat zuzendari izateko bokaziorik. Hau kasualitatea izan da, egingo ditut gauza gehiago.

Edonola ere, bai, badirudi euskal zinema espainiar zinemaren rock-and-rolla dela eta estimatua dela nazioartean. Bereziki, euskarazko filmekin.

Pedro nagusiagoa da, baina David euskal zinemaren ahots berria da eta gauza asko egin ditu Paul Urkijorekin. 2010ean eta 2011n susmatzen zen uneren batean euskal zinemaren harrobiak eztanda egingo zuela eta zorionez gertatu da.

**Zuzendaritza ez bada zure tokia zineman, zein da?**

Ni gehienbat ekoizlea naiz. Hori bai, ekoizpenaren barruan arlo ugari dago eta produkzio exekutiboaren sorkuntzari lotutako aldea ni naiz. Gidoia heltzen zaidanean, asko hitz egiten dut zuzendariarekin horri buruz, zer hobetu daitekeen eta zer aldaketa mota egin behar diren. Gero, dirua lortzeko, gidoiaren dosierra egiten dut eta hor kontzeptualizazio asko dago. Ilustratzailearekin, gidoilariarekin, zinemagilearekin... lan egiten dut eta ematen diogu forma. Helburua da finantzazioa eskuratzea eta filme batekin bi, hiru edo lau urtez bizitza. Diru iturriak lortzeko hainbat kontu aintzat hartu behar dira eta hori ere nire lana da.

Finean, ni ekoizlea naiz, baina batzutan gidoi edo zuzendari lanak egiten ditut.

**Zein filmetan egin duzu lan hori?**

Adibidez, *Errementari* pelikulan, baina hor landu nuen gehienbat komunikazioan. *Ane* filman ere egon naiz, eta *Retrato de mujer blanca* pelikulan ere, Blanca Portillo eta Imanol Ariasekin. *La noche del virgen* ere ekoitzi dut. Ez dut lan ugari egin, ez naiz Weinstein anaiak (barreak).

**Zerk erakarri zintuen zinemara?**

Suposatzen dut honetan lan egiten dugun guztiok bezala, pasioak. Oso zinefiloa izan naiz txikitatik. 15 eta 16 urte nituenean uste nuen gai izango nintzela industria honetan arikoeta arlo bat hautatu dut.



## babestutako edukia

# OPARITU TOKIKOA ETA EKOLOGIKOA

Euskal Herriko eta Aiaraldeko produktuekin osatutako saskiak, tamaina eta prezio ezberdinetakoak. Nahi izanez gero, saskia pertsonalizatu dezakezu.

**PERTSONALIZATU  
SASKIA!**

BARAZKIJALEAK  
ERE



40,00€  
\*36,00€



58,00€  
\*54,00€



76,00€  
\*70,00€



19,00€  
\*17,00€



38,00€  
\*32,00€



35,00€  
\*32,00€



16,00€  
\*14,00€



17,00€  
\*15,00€



17,00€  
\*15,00€



[www.ekonomatua.eus-en](http://www.ekonomatua.eus-en) salgai edo

Laudioko industrialdean 4-8

Astelehenetik- ostiralera 11:30-14:00 eta 17:00-20:00 eta larunbatetan 10:30-14:00





# Karateko 5 gerriko beltz utzi ditu udak

Karateak uzta bikaina utzi du Aiaraldean eta Laudioko 6 gaztek lortu dute gerriko beltza eskuratzea. Borroka diziplina honi buruz aritu da Aiaraldea Komunikabidea haiekin.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

“Talde bat gara eta talde bezala entrenatzen dugu” adierazita, argi azaldu dute Laudioko karateka gazteek zein izan den euren sekretua uda bakarrean 5 gerriko beltz eskuratzeko. Aimar Garzonek (2006), Ekain Perezek (2008), Ander Palacinek (2005), Eder Bergarak (2005) eta Arriet Artarazek (2006) adin anitzeko taldea osatu dute eta elkarrekin heldu dira borroka diziplina honek eskaintzen duen mugarrietako batera.

Edonola ere, eurek baino lehen Joane Cabañes aitortza bera lortu zuen iaz eta aurten lehen dana bereganatu du.

Bidea guztientzat, ordea, ez da motza ezta erraza izan. Duela zazpi urte hasi ziren kirol horretan eta gero eta serioago hartu dute, helburuak finkatu eta bete

arte. Batzuek onartzen dute lagunekin ondo pasatzeko izena eman zutela, baina gero ohartu zirela eurentzat gero eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari zela karatea: “Ez genuen uste hain urrun helduko ginenik, baina proposatuz gero, lor daiteke gerriko beltza. Hori bai, prest egon behar zara, serioa da” nabarmendu du Arriet Artarazek. Hain zuzen, Ander Palacinek eta Eder Bergarak ere lehen dana eskuratu dute. “10 dandiraguztira eta azkena 72 urterekin eskuratzen da” ohartarazi dute.

Edonola ere, euren arrakastaren gakoa talde lana izan da. Angel Daza maisuak entrenatuzituen, baina eurek klase arruntak jarraitu ez ezik, euren kabuz ere trebatu dira. “Senseiak lagundu gintuen hasieran, baina azken egunetan gure artean zuzentzen ginen” aipatu du

Eder Bergarak. Esperientzia eta elkarlana hain positiboa izan da eurentzat, ezen orain belaunaldi berriak laguntzen zentratzen ari baitira.

#### Azterketa

Gerriko beltza eskuratzeko, azterketa praktikoa gainditu beharra dago eta bere izaera da. Alegia, teknikak, katak eta borroka egin behar izan zituzten epaileen aurrean. Ez dakitenentzat, Aimar Garzonek azaldu du; “Katak mugimendu sorta dira. Batzuk defentsarako eta beste batzuk erasorako. Zaila da menderatzea, askotan errepikatu behar baitira”.

Borrokei dagokienez, karatekek euren artean neurtu behar izan zituzten indarrak. Hala eta guztiz ere, lehia hutsa ez zen izan talken funtsa. Ander Palacinek azaldu du: “Garrantzitsuena ez da irabaztea edo galtzea,

**Hiru hizlariek nabarmendu zuten kulturaren dagoen prekarizazioa ez duela COVID-19aren pandemiak sortu, lehenagotik datorrelako**

baizik eta erakustea badakizula ikasitakoa erabiltzen”.

Nahiz eta norgehiagokak lagunaren artean izan, guztiek bukatu dute oso pozik emaitzarekin eta azterketarekin, oro har. Ekain Perezek aipatu bezala: “Zapore onarekin amaitu genuen proba, urtebetez entrenatu eta gero. Egunean bertan esan ziguten guztiok lortu genuela gerriko beltza, baina ez dugu elkarrekin ospatzeko aukera izan. Berehala heldu ziren oporrak eta sakabanatu ginen”.

Hala ere, tatamiaren gainean daude berriro bostak elkarrekin, hurrengo erronkaren zain. Bik badute esperientzia txapelketetan, baina, momentuz, ez dute lehiaketetan parte hartzeko asmorik eta, gainera, COVID-19 dela medio, probak bertan behera geratu dira.



# kirola

Gorobel ibilaldiaren 35. edizioa antolatu zuen ziren Amurrion, Aiaraldeko gailurrez gozatzeko igandean Mendiko Lagunak taldeak. Hotza eta irrikaz. Aurreikuspen guztiak gaindituta, lokatzari aurre eginda, ehunka mendizale elkartu asebeteta bueltatu ziren mendizaleak etxera.

## Mila mendizale Gorobel gosez



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Elurak 2019an eta COVID-19aren pandemiak 2020an Gorobel Mendi Ibilaldia bertan behera uztea eragin zuten. Aurten, bi urteko etenaldia gainditzea eta ibilaldiaren 35. edizioa arrakasta osoz antolatzea lortu du Amurrioko Mendiko Lagunak taldeak.

Aste euritsu baten ostean, eguraldiak etena eskaini zien Amurrion elkartutako ehunka mendizaleei, eta Gorobel

mendileroko gailurrez gozatzeko aukera paregabea eskaini zien. 25 kilometroko ibilbideak elkartu zituen mendizale gehien.

Autobusez abiatu ziren Maroño ingurura, Ungino eta Tologorri igotzeko helburuarekin. Juan de Urrutia plazatik abiatzen lehenak, ordea, 43 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten kirolariak izan ziren. Hauek Babio, Eskutxi, Aro eta Moskadero mendiak gehitu zituzten aurrekoen gailur-zerrendara.

Bi ibilbideek Goizale Aterpea izan zuten epizentro. Dozenaka

boluntariok otordu beroa prestatu zuten ibilaldian izena emanda zeuden ia mila mendizaleentzat. Salda beroa ezinbesteko aliatua bilakatu zen nekeari, lokatzari zein tenperatura hotzei aurre egiteko.

### Mendizale gazteenak Babiora

Eskualdeko mendizale gazteenek ere izan zuten Gorobel Ibilaldian parte hartzeko aukera. Goizeko 10:00etan, dozenaka familiak abiatu ziren Babio mendiko gailurra konkistatzera. Asteburu erabakigarria dator.





**kirola**



2021eko  
Udazkena

KULTUR  
**FAKTORIA**  
**Mahaingurua**  
*“Tubacex: Hilabete lanean”*

Azaroak

**12**

19:30etan  
FAKTORIAN



**HIZLARIAK:**  
**TUBACEXEKO LANGILEAK**

Naiara Olabarrieta · Julen Cicero · Aitor Bordagarai  
 Urtzi Maio · Nortxu Iturrioz

#BizitzekoFaktoria  
 #AmestekoFaktoria  
 ERROTARI KALEA, 4-8 PABILIOIA  
 LAUDIOKO INDUSTRIALDEA  
 LAUDIO - ARABA -

Zuzenean  
 Aiaraldea.eus  
 atarian



# kirola

KICK BOXING-A

## Montenegron lehiatzen ari da Izaro Blanco, Europako Kick Boxing Light Txapelketan



Izaro Blanco Laudion entrenatzen. Aiaraldea,eus

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Izaro Blanco Montenegroko Budva hirian dago une honetan Europako Kick Boxing Light Txapelketan parte hartzen. WAKO elkarteak antolatzen du lehiaketa, eta orozkoarrak motibazio handiarekin hartu du erronka, nahiz eta 20 egun lehenago jakinarazi zioten hitzordua.

Astlehenean-azaroak 8-hasi zuen egonaldia azaroaren 15ean amaituko da, eta txapelketa irabaztea izango du xede: "2018an munduko bigarren izan nintzen, eta 2019an Europako bigarrena ere. Nire helburua garaitzea da".

Hain zuzen ere Australia garaitu zuen astleheneko borrokaldean, eta gaur-azaroak 10- Turkiako ordezkariaren aurka neurtuko da.

Kirolariak Aiaraldea Hedabideari adierazi dionez, "topera" dago; eta pandemian ez dio utzi entrenatzeari. Alegia, itxialdiak eta osasun larrialdiak lagundu egin dute kirolaria jabetzen zein garrantzitsua den Kick Boxinga bere bizitzan: "Mentalki hobetuta, faltan izan dut kirola, nahiz eta egunero entrenatu dudana nire nebarekin. Hala ere, tarteak izan dut hausnartzeko eta pentsatzeko zer nolako garrantzia duen kirolak garaitzea".

FUTBOLA

## Iñaki Beak klub bila ari diren futbolari espainiarrak zuzenduko ditu

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Futbolari Espainiarren Elkartek Iñaki Beak hautatu du Korantina Homes Cup 2021 txapelketan entrenatzaile gisa aritzeko. Txipren, Pafos hirian, jokatu da norgehiagoka, azaroan.

Txapelketa horren helburua

da klubik gabe dauden jokalariek euren gaitasunak erakustea. Profesional gehienak ez dira bereziki ezagunak, z. B mailan aritu direlako, baina badaude 1. mailan egon direnak, Raul Albentosa kasu. Albentosak Eibarren, Derby Countyn, Deportivo de la Coruñan, CSKA Moskun edota Dinamo Bukaresten militatu du.

TRAILA

## Aiaraldearrak Bartzelonako elkartasun maratoian

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Spiderabel Fernandez, Xabi Alonso eta Iñaki Ibarrola amurriorek eta Guipuzkoan Alonso okondoarrak parte hartu zuten Zurich Marató Barcelona lasterketan. AEFAT elkartearen eskutik, ataxia telangiectasia duten 9 gazteren aulki gorpildunak bultzatu zituzten 42 kilometrotan zehar. 30 boluntario aritu ziren guztira ardura horretan.



Eskualdeko lau lasterkari batu ziren Bartzelonako maratoira. AEFAT

neguko

# TRUKE AZOKA

**Jostailuak trukatzeko espazioa**

**Txartel bat jostailu baten truke**

**Kontsumo ohiturak aldatu**

**Familia giro ederra**

**KOKORIKO**

HEZKUNTZA  
**FAKTORIA**

*Kirolariak*  
*taldea*

**AZAROAK 28. domeka FAKTORIAN**

**10:30 - 13:00 JOSTAILU TRUKEA (jasotako txartelak)**

**11:30 HAMAIKETAKOA**

**12:00 MATERIAL EZ-ESTRUKTURATUAREN TRUKEA**

**12:45 ZOZKETAK**

+ jolasegunea goiz osoan zehar

**JOSTAILUAK BILTZEKO GUNEAK**

**GUNE PUNTUALAK:**

Okondo: Azaroak 12, ostirala. Eskola irteeran.

Artziniega: Azaroak 19, ostirala. Eskola irteeran.

Luiaondo: KANTXA ESTALIAN Azaroak 20, larunbata. 17:00etan.

**GUNE FINKOAK** Azaroaren 12tik 25era

Astlehena, artearte eta ostegunetan.

11:00- 13:00 eta 17:00- 19:30.

Urduña: ALONDEGIA

Laudio: FAKTORIA

Orozko: INDUMA

Informazio gehiago: 722 22 75 32 (Julene) telefonora deituz // kokoriko@aiaraldea.eus



# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 24an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Haino

Zorionak!!!! Beti gazte, beti gaizto izango gara. Ez dugu zalantzarik ospatzeko aitzakia ez duzula galdu

**Lagunak**



## Aiala

Zorionak gure hirukote paregabea osatzen duen loretxo alaiari! Maripiliak elkarrekin hazten jarraitzeko, maite zaitugu!

**Itxas eta Ayae**



## Teye

Zorionak Artetxe! Jarri egun bat pendeinte dugun espediziñorako! Maite zaitugu!

**Aiarako Gazte Mendi Taldea**



## Aita

Zorionak aitatzu! Zortea gurea, zu erduztat izateagatik! Izugarri maite zaitugu!

**Xabier, Aimar eta Paule**



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

## Denborapasak

ERRAZA

			5	4		7		
5	2			3	8	6	4	
8		3		7			5	2
	6	2						4
7			2	5	4	3		6
			6		7		2	9
	8							5
					5		6	
2				8				

ZAILA

	6		8					
3				2			1	6
		4	7		6	9		8
6		1	5				9	
4		8			3		6	
	9				4			
		3			8		7	
			3	7	9			
7				6			5	

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

**CRISTINA NAREA**  
**KANTU KLASEAK**  
(kantu irakasle aditua)

Neurrira egindako,  
banakako ikastaroak  
**ERRESERBATU ZURE LEKUA!**

**DRUMGORRI**  
MUSIKA ESKOLA

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan ☎ 699 88 35 63

**PELLET ETA BRIKETAK**  
Landare-erregai ekologikoa eta ekonomikoa

**BEROGAILUAK ETA TXIMINIAK**

LACUNZA RAVELLI

**GALDARAK**  
**ERRAUTS XURGAGAILUA**  
**METALEZKO EGURTEGIAK**  
**EGUR-LABEAK**

Torresar auzoa 8, OROZKO  
946 61 02 28 [www.maderas-torresar.com](http://www.maderas-torresar.com)



# KOKORIKO

## IRAKURKETA GUNEA

### ELTXO BATEK ZIZTATZEN BADIZU

**Idazlea:** Jordi Gastó

**Ilustrazioak:** Christian Inaraja

**Argitaletxea:** Kalandraka

Eltxo batek ziztatzen badizu zer egin dezakezu? Ipuin ilustratu honek hainbat adibide emango dizkigu, hain ohikoa den gertaera pasatzeko. Dibertigarria da hurrekin jolasteko.




### SUPER PATATA

**Idazlea:** Artur Laperla

**Argitaletxea:** Bang ediciones

Nerabeentzako komiki dibertigarriak dira Super Patatarenak. Hainbat liburuz osaturiko bilduma bat da eta Patata bat den superheroiak pasarte ezberdinak biziko ditu. Deskubritu nahi duzu zelan sortu zen superheroi hau? eta zeintzuk abentura bizitzen dituen?



## JOLAS GUNEA

### ARAKALDO

**LEKUA:** Arakaldo (Bizkaia)

**AZALPENA:** 2020an hasi zen haur parke honen hazia ereiten, Kokoriko Hezkuntza Faktoriak eta Hiritik At arkitekto taldeak elkarlanean, Arakaldoko hurrekin parte hartze prozesu bat abiatu zutenean. Haurren nahi eta beharretatik, degradatua zegoen gune natural bati erabilera ematea lortu egin da.

Hainbat elementu ditu parkeak, deskantsurako, gora behera ibiltzeko, etxola, eskalada...

Oso gune txikian eta naturan integraturik jolaserako gune paregabea sortu dute. Ezagutu eta gozatu!



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Generoa


Haurrak jaiotzerakoan katalogatzeko beharra du jendarteak. Guraso izatean galdera ohikoena izaten da ea neska edo mutila den. Batez ere, izenak ez badu marka hori ezartzen. Jaio eta jarraian, lehenago ere hasten ez bada, baldekada ur baten gisan botatzen dizkiogu haurrari genero rol estereotipatuei dagozkien ezaugarri ezberdinak.

Ezberdin jantzen ditugu, neska izan edo mutila izan. Ezberdin hitz egiten diegu, espektatiba ezberdinak aurreikusten dizkiegu. Ohikoa da entzutea, "nik ez dut ezberdin hezten, nik hori ez dut egiten..." Esaldi hauek egunerokotasunean mantra bat bailiran erabiltzen ditugu, "ni ez naiz matxista, ni ez naiz arrazista..."

Baina, betaurreko bereziak jartzean horrelako gauzak aztertzen dituzten betaurrekoak, konturatzen hasiko zara norbera izaten dela lehenengoa ezberdin tratatzen dituela haurrak beraien genitalen arabera. Oso errotua eta barruan dugun zerbait da, genero rola birproduzitzen ditugu eta haurrari txiki-txikitatik sartu egiten dizkiogu.

Ez dago kanpora begiratu beharrik, publizitate sexistan, jostailu ezberdintasunean, arropa dendetan dauden bereizketetan... Barrura begira dezagun, gure hitz egiteko moduan, tratatzeko moduan, beraietaz espero diugunaz... Haurrek jaiotzetik presio hori somatu eta bizi egiten dute eta barruan errotuta geratzen zaie. Deseraikitzen has gaitezen, gugandik, urteetan errotuta daukaguna analizatzen, eta saia gaitezen haurrak ahalik eta askeen hezten.

## ABENDUALDI EGUTEGIA




**ZER DA?** Abendua urteko azken hilabetea da eta Olentzerok zein Mari Domigik bisitatzen gaituzten hilabetea.

Egutegi honek Gabon egun berezirako zenbat egun falta diren kontatzen ditu, hurrekin batera.

Egutegi hau zuek sortzera gobidatzen zaituztegu, interneten hainbat adibide daude, hauek dira kontuan hartu beharrekoak: 1etik 25era egun bakoitzak toki bat izan behar du, sobre/kutxa edo gauzak gordetzeko zerbait izan behar du egun bakoitzak. Gauza da haurrek egun bakoitzean altxor txiki bat topatzea: jatekoa, jolastekoa... Erositakoa ez bada askoz hobe; jolasteko botoi batek, luma batek, piñaburu batek balio dute. Sormena garatu hurrekin batera!






# Mezua

Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta txoritxoak zer dioen jakingo duzu. Esaera ezagun bat da.

ALFABETOA



# pareak bai!

Lotu irudi bakoitzari bere izena. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



MITXOLETA

TXOLARREA



LIKANTROPOA



ERPINA



KUKUSOA




SAIA

TXERMENA



AHO-GINGILA



# Handitik txikira

Ordena itzazu flamenko berezi hauek handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanaz eta txikienari 6.

Gainera margotu egin behar dituzu, honela:

- 1.- Isats-hegalak gorritz eta gorputza arrosaz.
- 2.- Isats-hegalak laranjaz eta gorputza gorritz.
- 3.- Isats-hegalak laranjaz eta gorputza urdinez.
- 4.- Isats-hegalak horiz eta gorputza berdez.
- 5.- Isats-hegalak berdez eta gorputza grisez.
- 6.- Isats-hegalak arrosaz eta gorputza zuriz.



# Orbela

Bost txatal hauetatik bi irudi nagusitik hartuta daude eta beste hirurak engainariak dira. Bereiz itzazu.

# SOLUZIOAK





# Kontra

## Mundutik Aiaraidera



### LAILA ARGANE

JAIOTERRIA  
MAROKO (1982)

BIZILEKUA  
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA  
FAMILIAREKIN BATERA, BIZITZA  
HOBE BATEN BILA ETORRI ZIREN AMURRIORA

### MAROKO



#### DESKRIBAPENA

Afrika ipar-mendebaldeko estatua da. Arabiera da hizkuntza ofiziala baina bestelako hizkuntza batzuk ere hitz egiten dira, tartean amazigera edo berebera. Afrika iparraldeko komunitate txiki ugartan erabiltzen da, hala nola Maroko hegoaldean, Rif eskualdean edota Algerian. 25 milioi hiztun ditu amazigerak guztira.

#### BIZTANLEAK

36 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Arabiera (hizkuntza ofiziala), amazigera, hassania, frantsesa eta gaztelania

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa:  
egunkaria@aiaraldea.eus  
agenda@aiaraldea.eus  
agurrak@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabiloia, Laudio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea, Elixarritz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunat Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

## “Etxean ahalegina egiten dugu seme-alabek sustraiak galdu ez ditzaten”

#### Noiz iritsi zinen Euskal Herrira?

Ni Agadirrekoa naiz, Maroko hegoaldeko hiria, eta nire senarra Oujdakoa, iparraldekoa. Lan bila Murtziara joan ginen bizitzera eta 10 urte eman genituen bertan. 2008ko krisi ekonomikoaz geroztik, asko okertu zen bertako egoera, ez zegoen lanik, eta Amurrion erortzea erabaki genuen.

Bizitzeko toki atsegina aurkitu dugu hemen, lan baldintzak Murtzian baino askoz hobekak dira. Klima ere atsegina dugu, gure seme nagusiak asma dauka eta on egiten dio bertoko eguraldiak.

#### Hona iritsi zinetenean ez zenuten Amurrio aurretik ezagutzen.

Ez genekien ezer herriaren

inguruan, guztiz ezezaguna zitzaigun. Marokotik Espainiara joan ginenean ere itsu-itsuan joan ginen. Ohituak gaude bidaiatzera, horrela bizi gara. Goazen lekura goazela bertan integratu beharra dugu, eta etorkizun batean beste nonbaitera joan behar bagara, berdina egingo dugu. Zure familiarengandik eta zure lurretik hainbeste denbora aldentuta egon ostean, berdin zaizu non bizi. Guk gure seme-alabei bizitza on bat eskaini nahi diegu, besterik ez.

#### Uste duzu Amurrion aurkitu duzuela hori?

Bai, zalantzarik gabe. Nire senarra beste herrialde batzuetan ere ibili da lan bila, baina Europan arrazakeria asko dago, eta lan-baldintzak nahiko

kaxkarrak dira. Hemengo bizi-baldintzak hobekak dira. Osasun eskubidea bermatuta daukagu hemen.

#### Zer nolako harrera izan duzue?

Oso eskertuta gaude, oso pertsona atseginak ezagutu ditugu, etxeko ateak parez pare zabandu dizkigutenak. Guk mundu guztiarekin dugu harremana. Bizilagunak bezalako ekimenek ere asko lagundu digute gure kultura hemengo kulturarekin elkarbanatu eta zubiak eraikitzeko. Lagun berri asko egin ditugu.

Gainera, zorionekoak gara, gure seme-alabek euskara ikasteko aukera izan dutelako. Gazteak dira eta adin horretan belaki baten moduan xurgatzen dute dena.

#### Zaila da sustraiak atzean uztea?

Noski zaila dela. Nire senarrak eta nik arabiar eskolak eskaintzen ditugu herrian bizi diren familientzako. Nik Marokoko Batxilergoa dut eta arabiarra irakasteko gai naiz. Oso garrantzitsua da guretzat seme-alabek arabiarra ezagutzea eta erabiltzea. Ez bada erabiltzen galduta egiten da, euskara bezala. Guk etxean ahalegina egiten dugu seme-alabek sustraiak galdu ez ditzaten, eta Marokora familia bisitatzera bueltatzen direnean arabiarrez mintzatzeko aukera izan dezaten.

Horrez gain, amazigera ere hitz egiten dut nik ere: hizkuntza berebera. Marokoko hegoaldean hitz egiten da, baina seme-alabek eta senarrak ez dute ezagutzen.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA